



lazkano

Bitakora koadernoa

BERGARA 2021. AROZTEGI ARETOA

Erakusketa • Exposición

Apirilaren 16tik maiatzaren 23ra

Del 16 de abril al 23 de mayo

ERAUSKETA [EXPOSICIÓN](#)
Lazkano. Bitakora koadernoa

ANTOLATZAILEA [ORGANIZADOR](#)
Bergarako Udal [Ayuntamiento de Bergara](#)

KOMISARIOA [COMISARIADO](#)
Irune Lazkano


INPRIMAKETA-EDIZIOA [IMPRESIÓN-EDICIÓN](#)
K3 Inprimategia

ARGITARAPENA [EDICIÓN](#)
Bergarako Udal [Ayuntamiento de Bergara](#)

LEGE GORDAILUA [DEPÓSITO LEGAL](#)
LG D 00397-2021



Gravitation II
Akrilikoa mihise gainean • Acrílico sobre lienzo
155 x 225 cm
2013



Donostia
Akrilikoa mihise gainean • Acrílico sobre lienzo
100 x 73 cm
2015

Margotzea mugetara hurbiltzen saiatzea da, bukaeraraino joatea edo hasiera bilatzea, osotasuna hartza edo hutsa aurkitzea. Askotan galdetzen diot neure buruari margolan batek pintorearen ibilbide osoa laburbiltzen ote duen; obra batek laguntzen ote digun pintorearen pentsamenduauren klabeak aurkitzen, haren mundura sartzeko atea zabaltzen; edo ekoizpen osoa ikusita, zerbaite sentitzeko gai izango ote garen. Agian, bere bizitza osoa haurtzaroan hasitako lehen koadro haren jarraipena besterik ez da, amaitu gabea eta bukaezina.

Koadro bat ikustea edo natura ikustea, edo koadro bat ikustea natura ulertu eta sentitzeko. Uste dut pintura zubi bihurtzen dela, bide bihurgunetsua, emozio askearen lekura eramatzen gaituena, non naturaren "izpiritua" atzematen den, lasaitasun kontenplatiboa bidez; pintatzen jardutea tresna gisa erabiltzea, era intuitiboan bada ere objektibotasunetik haratago joan eta zirkunstantziala dena gainditzen saiatzeko; fenomeno naturalen esentzian murgildu eta "beste leku batera" iristea, beste kontzientzia-maila bat lortzea. Eta pinturaz ari garela, egia da pintatu aurretik natura "buruz" jakin behar dela, eta horrenbesteko implikazio-mailak, Wu Saozi bezala –kondairari kasu egiten badiogu–, margotu berri duzun paisaia baten lanbroan desagertzera eraman zaitzake.

Ilusio horrek bultzatzen gaitu –teknika delikatu eta neketsuaren bidez– gure izaeraren barnean arakatzera, gure intuizio-gaitasuna zabaltzen, begiratzen ikastera eta, ezagutza horretatik abiatuta, kontenplazio zorrotzaz eta arreta aktiboaz, gauzen esentzia berreskuratzera.

Pertseberantzia eta oroinmena behar dira izakiaren hondora, esentziara, funtsera iristeko, hutsaren bila ibiliz osotasunerako bidean.

Nire bidea hemen hasi zen, Bergaran, 1960ko urtarrilaren 10ean eta gaur egun oraindik jarraitzen du, zalantzakin, galdera gehiegirekin eta erantzun gutxirekin.

Jesus Mari Lazcano, itsasgoran otsaileko ilargi betean.

Pintar es intentar acercarse a los límites, ir hasta el final o buscar el principio, abarcar la totalidad o encontrar el vacío. Muchas veces me pregunto si un cuadro resume la trayectoria completa del pintor, nos permite encontrar las claves de su pensamiento, las puertas de entrada a su propio mundo o si seremos capaces de sentir algo a la vista de toda su producción. Acaso toda su vida no es más que la continuación de aquel primer cuadro comenzado en su niñez, inconcluso e imposible de terminar...

Contemplar un cuadro o contemplar la naturaleza o contemplar un cuadro para entender y sentir la naturaleza. Creo que la pintura se transforma en un puente, camino sinuoso que nos transporta al lugar de la libre emoción, donde captar el "espíritu" de la naturaleza a través de una calma contemplativa; la práctica de la pintura como herramienta para, intuitivamente, tratar de trascender lo objetivo, lo circunstancial, bucear en la esencia de los fenómenos naturales, y llegar a "otro lugar", alcanzar otro grado de conciencia. Y hablando de la pintura, es un hecho cierto que, antes de pintar, hay que saberse "de memoria" la naturaleza, un grado de implicación que como a Wu Saozi, si hacemos caso a la leyenda, te lleve a desaparecer en la bruma de un paisaje que acabas de pintar.

Una ilusión que nos empuja, a través de una técnica delicada y laboriosa, a indagar en nuestra propia naturaleza, ampliar nuestra capacidad intuitiva, aprender a mirar y desde ese conocimiento, con una minuciosa contemplación y la atención activa, rescatar la esencia de las cosas.

Necesaria perseverancia y memoria para llegar al fondo, lo esencial, lo profundo del ser, en la búsqueda del vacío como camino de la plenitud.

Mi camino comenzó aquí, en Bergara, el 10 de enero de 1960 y hoy todavía continúa, con dudas, con demasiadas preguntas y pocas respuestas.

Jesus Mari Lazcano, con la marea alta en la luna llena de febrero.








Cuaderno del Ártico II
Grafitoa eta akwarela paper gainean • Grafito y acuarela sobre papel
19,5 x 25 cm
2017

Aurreko orrialdean / Página anterior:

World memorial
Akrilikoa mihise gainean
Acrílico sobre lienzo
182 x 426 cm
2014



Las dudas de Alfonso también son las nuestras
Akrilikoa mihise gainean • Acrílico sobre lienzo

42 x 42 cm

2016



Svalbard
Akrilikoa mihise gainean • Acrílico sobre lienzo
125 x 200 cm
2019


Beti egon da zentzuzko zalantza bat benetako errealitateari buruz; gure begien aurrean dugun, horren partaide garen eta baldintzatu egiten gaituna. Norainoko egiazkotasun-maila ematen diogu baita gu geu ikusten ari garenari ere? Zientzia guri laguntzera dator “ziurtasun erlatibo” hori sendotzeko behar diren datuak emanez; baina horren gainetik, egunerokotasunaren joan-etorria dago, gertaerei buruz dugun pertzepzioa eta prozesu horretan sentitzen ditugun emozioak. Artea bizitzaz elikatzen da, pintura gure esperientziez elikatzen da, hori da artistak lantzen duen material sentikorra.


Objektu artistikoa progresiboki desagertzen ari bada ere – artearen joera gehiago baitoa instalazioa edo interbentzioa egite aldera eta, ondorioz, goratuz doaz ekintza, testua edo dokumentua–, pinturak beti mantenduko du norbanakoaren adierazpen-gaitasun paregabe hori; gauzak kontatzeko, bizitza edo emozioak deskribatzeko modu pertsonal bat; eta pintura horretara beti itzuli ahal izango gara, behin datuek zapalduta hil zorian gaudenean, azken gailu teknologiko liluragarriaz aspertuta. Pintura, kontrolik gabeko azken gunea, erresistentzia-eremua eta, azken finean, biziraupeneremua. Bizitzeko beste modu bat.

Siempre ha existido una duda razonable sobre la auténtica realidad, aquella que tenemos ante nuestros ojos, de la que participamos y la que nos condiciona ¿Qué grado de veracidad damos, incluso a lo que nosotros mismos estamos viendo? La ciencia viene en nuestra ayuda para aportar los datos necesarios para consolidar esa “relativa certeza”; pero sobre todo ello, está el discurrir del día a día, nuestra percepción sobre los acontecimientos y las emociones que sentimos en ese proceso. El arte se alimenta de la vida, la pintura se nutre de nuestras experiencias, este es el material sensible sobre el que el artista trabaja.

A pesar de la progresiva desaparición del objeto artístico –inclinado el arte más hacia la instalación o la intervención y el consiguiente ascenso de la acción, el texto o el documento–, la pintura siempre mantendrá esa capacidad única de expresión del individuo, una manera personal de contar las cosas, describir la vida o las emociones; una pintura a la que siempre podremos volver cuando estemos a punto de fallecer aplastados por los datos, aburridos del último y fascinante dispositivo tecnológico. La pintura como último espacio libre de control, ámbito de resistencia y en definitiva de supervivencia. Otra forma de vivir.

Raudfjorden I, II, III
Koloretako pastela eta
arkatzak paper gainean
Pastel y lápices de colores sobre papel
146 x 110 cm bakoitzak / [cada uno](#)
2017





Han egon arren ikusi ez genuen “errealitatea”

Nabigatzen ari ginen, haize alde, Ozeano Artikoko lainoen artean, 80º Iparra. Bat-batean, zerua ireki, lainoak desagertu eta gure aurrean, izotz-puska amorfo baten gainean, mortsa izugarri bat zegoen atseden hartzen. Belaontzia leun-leun zihuan irristatzen mortsatik 50 metrora, eta animaliak keinurik ere ez zuen egin. Eszenaren handitasunaren aurrean txunditutik, begira geundela, Eric Esterlek argazki batzuk atera zituen. Geroago, ontziaren barruan eszena gogoratzan geundela eta Eric-en argazkiak ikusterakoan, gure buruari galdetzen genion: Eszena bera ikusi ote dugu? Eric-en argazki-ekipoak –lenteen, softwarearen eta edizioaren eraginez– ahalmena zuen mortsa bat hartzeko eta gutako inork ikusi ez zuen zerbait bihurtzeko; baina zerbait berria, kitzikagarria, erakargarria eta magnetikoa. Argazki hori erreferentiazko aldizkari batean argitaratuko zen, eta jende guztiak ikusiko zuen han geundenok ikusi ez genuena. Eta horrela eraikitzen dira errealitate berriak, aberatsak, distiratsuak, ultradefinituak. Argazki digital hori gure esperientzia baino errerealagoa ote da? Gehiegizko definizio horrek errealitateari buruz ditugun espektatibak itxuraldatu egiten ditu eta, horrenbestez, argazkian ikusten dugun hori errealitatean bilatzen dugu, baina ez da existitzen.

La “realidad” que no vimos estando allí.

Nos encontrábamos navegando al viento entre las nieblas del Océano Ártico, 80º norte, cuando, súbitamente, el cielo se abrió, desaparecieron las nieblas y frente a nosotros sobre un témpano amorfo, descansaba una morsa impresionante. El velero se deslizaba suavemente a 50 metros de la morsa y ni se inmutó. Atónitos frente a la majestuosidad de la escena, mientras mirábamos, Eric Esterle tomó unas fotografías. Más tarde, recordando la escena en el interior del barco y a la vista de las fotos de Eric nos preguntábamos ¿habíamos visto la misma escena? El poder de su equipo fotográfico, lentes, software, edición, convirtieron la morsa en algo que ninguno de nosotros habíamos visto, pero nuevo, excitante, atractivo y magnético. Esa foto será publicada en una revista de referencia y todo el mundo verá lo que nosotros, que estábamos allí, no vimos. Y así se construyen las nuevas realidades, ricas, brillantes, ultra definidas ¿Es más real esa foto digital que nuestra experiencia? Ese exceso de definición distorsiona nuestras expectativas de la realidad, buscando en ella lo que vemos en la fotografía, pero que no existe.



Auefjellet
Akrilikoa mihise gainean • Acrílico sobre lienzo
97 x 130 cm
2020




El techo del mundo II
Akrilikoa mihise gainean • Acrílico sobre lienzo
182 x 121 cm, xehetasuna/detalle
2014



Bradford now
Akrilikoa mihise gainean • Acrílico sobre lienzo
150 x 150 cm
2020







Cuaderno del Ártico II

Grafitoa eta koloretako arkatzak paper gainean • Grafito y lápices de colores sobre papel

19,5 x 25 cm

2017

Aurreko orrialdean / [Página anterior:](#)

Del orden natural II

Arkatza eta akrilikoa paper gainean

Lápiz y acrílico sobre papel

90 x 230 cm

2016



Blanco sobre blanco
Koloretako pastela eta arkatzak paper gainean
Pastel y lápices de colores sobre papel
110 x 145 cm
2016

Inoiz ez dakigu noiz sortzen diren ideiak, onak edo txarrak, baina ideiak. Edozein euskarri da ona ideiak gordetzeko... Nire bidaietan motxilan koaderno bat eramatzen dut. Bidaiatzen dugunean erneago gaude, irekiago, burua bizkorrago dabil, arinago, sentsazio berriak hartzeko prest, errealitye berriari aurre egiteko jarrera desberdin bat da. Koaderno horiek gai dira begiratzeko modu berri hori jasotzeko; ikusten ez genuena aurkitu ondoren, gure esperoan zegoen idea –gu aldatu arte zain geneukanabertan islatu daiteke. Horregatik, bidaia-koadernoa koaderno bikoitz da, grafikoki bidaiatzeko lekua, baina baita amets egiteko eta imajinatzeko lekua ere. Bidaia-koadernoa astiroago joateko modu bat da, beste era batean begiratzeko eta ikusten dugunaz pentsatzeko, izpiritua arakatzeko; gugan antzematen dugun “zerbait” hori agerian gelditzeko zain dago eta denbora behar da marraztu ahal izateko. Bidaia-koaderno horrek beti ezkutatzen du ikusten duguna baino gehiago, eta begirada berri bakoitzak paisaia mental berriak erakusten dizkigu, bere garaien ikusi ezin izan genituenak, edo ikusten jakin izan ez genuenak. Koadernoak oroinaren salbazio-taula dira, gure irudimenaren kutxak, idea-iturri bat, nahiz eta batzuetan arkatzak edo pintzelak ez obeditu eta marrazkia nahi ez duguna izaten amaitu...

Nunca sabemos en qué momento surgen las ideas, buenas o malas, pero ideas. Cualquier soporte es perfecto para retenerlas... Tengo la costumbre de acompañar mis viajes con un cuaderno en la mochila. Cuando viajamos, estamos más atentos, más abiertos, la mente funciona ágil, fluida, receptiva a nuevas sensaciones, una diferente actitud para enfrentarnos a la nueva realidad. Son esos cuadernos los que pueden recoger esa nueva forma de mirar, descubrir lo que no veíamos y reflejar aquella idea que nos esperaba, solo a falta de que nosotros mismos cambiáramos. Por eso el cuaderno de viaje es doblemente cuaderno, un lugar para viajar gráficamente, pero también para soñar e imaginar. El cuaderno de viaje es una manera de ir más lento, mirar de otro modo y pensar sobre lo que vemos, rastrear el espíritu; ese algo que intuimos aguarda a ser desvelado y necesita el tiempo necesario para dibujarlo. Ese cuaderno de viaje siempre esconde más de lo que vemos y cada nueva mirada nos revela nuevos paisajes mentales que no pudimos o no supimos ver en su momento. Los cuadernos son la tabla de salvación de la memoria, los cajones de nuestra imaginación, una mina de ideas, aunque en ocasiones el lápiz o pincel no obedezca y el dibujo acabe siendo lo que no queremos...

*Cuaderno del Ártico
Aquarela eta koloretako arkatzak paper gainean
Acuarela y lápices de colores sobre papel
15 x 47 cm
Ekaina, 2017*













Oraindik ere gustuko ditut paperezko mapa zaharrak; bidaiatzerakoan erabiltzen ditut, baina are gehiago bidaiatik itzulitakoan. Itzuli ondoren, mapa gastatu, zimurtu eta urratu horren baitan, bidaia osoa dago gordeta, altxor bilakatuta. Maparen tolestura, marka eta ohar askotarikoen artean, esperientzia-zatiak daude, memoria-gordailuak, argazkietan ikusi ezin ditugun oroitzapenak, kontakizunetan ulertu ezin ditugunak.

Nahikoa da maparen gainazala emeki-emeki laztantza biziakoa ernetzea, agertzea eta gogoratzeko, haizea harrotzen sentitzeko, ikuspegia hunkigarri baten hotzikara sentitzeko, glaziarraren aurrean ainguratuta goizeko lainoak desagertzen diren bitartean, edo itsas txakurren urpeko soinua itsasontziaren kaskoan zehar entzuterakoan, lotarako orduan hain justu.

Mapek laguntzen digute bidaia amesten, berriro bizitzen eta berrasmatzen; gure esperientzia hazten eta garatzen, gure irudimena pizten, paraje berdinatan birkokatzen baina begirada desberdin batekin –agian jakintsuagoa baina beti berria–; ikusitako marrazkietan barrena egindako ibilbide bat, existituko zirela jakin aurretik ere.

Gastatutako paperezko mapa zaharrak izaera geografikoa galdu du baina izaera mentaleko kartografia bilakatu da, pinturaren eta marrazkiaren lurraldea, irudimenerako espacio berri eta pizgarria.

Me siguen gustando los viejos mapas en papel; los manejo en mis viajes pero más aún a mi regreso. Tras el retorno, ese mapa gastado, arrugado y roto, esconde y atesora el viaje en su totalidad. Entre sus pliegues, marcas y anotaciones varias, se encuentran fragmentos de experiencia, depósitos de memoria y recuerdos que no vemos en las fotos, que no entendemos en los relatos.

Basta acariciar suavemente la superficie del mapa para despertar, desvelar y rememorar lo vivido, sentir arreciar el viento, el escalofrío de una vista sublime, fondeados frente al glaciar mientras se disipan las nieblas matutinas o el sonido de las focas bajo el agua a través del casco del barco, justo a la hora de dormir.

Mapas que nos hacen soñar nuestro viaje, volverlo a vivir, reinventarlo; un mapa que crece, que amplía nuestra experiencia, que nos hace imaginar, nos recoloca en los mismos parajes pero con otra mirada distinta, quizás más sabia, pero siempre nueva; un recorrido por los dibujos que vi, antes incluso de que supiera que iban a existir.

Un viejo mapa de papel gastado, que deja de ser geográfico y pasa a convertirse en cartografía mental, territorio de la pintura y el dibujo, un nuevo y excitante espacio para la imaginación.



NY - Alesund (I 78° 55' 35"N - L 11° 55' 36"E)
Pastela, kontea, grafitoa eta koloretako arkatzak paper gainean
Pastel, conté, grafito y lápices de colores sobre papel
22 x 70 cm
2017



Fuglefjorden (I 79° 45' 43"N - L 11° 28' 49"E)
Pastela, kontea, grafitoa eta koloretako arkatzak paper gainean
Pastel, conté, grafito y lápices de colores sobre papel
22 x 70 cm
2017



Caspar David Friedrich in Spitsberger
Pastela, kontea, grafitoa eta koloretako arkatzak paper gainean
Pastel, conté, grafito y lápices de colores sobre papel
22 x 70 cm
2017



Rissabreen - Sternabreen (I 49° 45' 5"N - L 11° 28' 5"E)
Pastela, kontea, grafitoa eta koloretako arkatzak paper gainean
Pastel, conté, grafito y lápices de colores sobre papel
22 x 70 cm
2017



Svalbard II
Serigrafia • Serigrafía
50 aleko tirada • Tirada 50 ejemplares
44 x 80 cm
2019



Blanco, after Hokusai
Pastela eta koloretako arkatzak paper gainean
Pastel y lápices de colores sobre papel
57 x 76 cm
2016

Ikusi nahi ez dugun paisaia

Iragan erromantikoak norabide jakin batean bultzatzen gaitu, eta kapituluak errepikatu egiten dira; oraindik bizirik dirau jenioaren eta gehiegizko nortasunaren ideia horrek edo sublimearenaganako ikuspegi tragikoak. Gure kultura garaikide zatituak ez dio era arin eta globalean erantzuten subjektuak naturarekin duen harremanaren gaineko betiereko arazoari.

Kaudimen teknologikoak itxurazko segurtasuna ematen du, baina ez du konpontzen naturaren izaera menderaezin eta suntsitzaleak eta gure hutsaltasunak eragiten digun bizi-larritasuna. Naturaren paradigma klasikoa, eredu unibertsal, infinitu eta ordenatu gisa sortua, aldatu egin da. Naturaren mugak ezagutzen ditugu eta naturala dena eraldatzan ari gara. Paisaiaren kontzeptu idealizatuak talka egiten du daukagun paisaiaren errealityarekin. Irudi ideal eta birtual horren atzean, errealityek espazio kutsatuak ezkutatzen ditu, oso ederrak, baina gainezkatuta uhin elektromagnetikoez, euri azidoaz, amiantoz, akuifero agortuez eta erreketako pestizidez. Haren irudi idealaren azpian, ahaztu egiten zaigu benetako paisaia, erabat gizarteratua eta ondorioz, suntsitua; berriz diot, paisaia hori ez dugu ikusten; noraezean dabiltzan plastikoez betetako ozeanoak, eta mikroplastikoak baita poloetan ere. Paisaia hori autobideetatik zeharkatzen dugu, haren gainetik hegazkinez ibiltzen gara, hirietan babestuta gaude, itxurazko "gerriko berde" batez inguratuta; "gerriko berdea", hiri inguruko igarobide planifikatua eta urbanizatua, bizitza osasuntsuaren eta kirolaren antzokia, teloi berde bat, paisaia errealityekin muga egiten duena; eta paisaia erreala etsai gisa aurkeztua, abandonatua, agortua, lur-mugimendu handien edo nekazaritza estentsiboaren ondorioz eraldatua; eta handik errepitez egiten dugu ihes. Azken finean, begiratu nahi ez dugun paisaia da, baina artistak aintzat ere hartu behar du, arreta jarri behar dio.

El paisaje que no queremos ver

El pasado romántico nos empuja en determinada dirección y los episodios acaban repitiéndose; esa idea del genio y la personalidad excesiva o la visión trágica de lo sublime, sigue perdurando. La fragmentada cultura contemporánea no da una respuesta fluida y global a la eterna cuestión en la relación del sujeto con la naturaleza. La solvencia tecnológica aporta una seguridad aparente, pero no resuelve la angustia vital, que el carácter inabarcable y devastador de la naturaleza y nuestra insignificancia nos provoca. El paradigma clásico de lo natural, concebido como modelo universal, infinito y ordenado ha cambiado. Conocemos sus límites y estamos transformando lo natural.

El concepto idealizado de paisaje choca con la realidad del paisaje que tenemos. Tras esa imagen brillante y virtual, la realidad esconde espacios contaminados, bellísimos, pero invadidos por ondas electromagnéticas, lluvia acida, amianto, acuíferos esquilados y pesticidas en los ríos. Bajo su imagen ideal, nos olvidamos del paisaje real, totalmente humanizado y en consecuencia destrozado, un paisaje que no vemos, insisto, océanos cargados de plásticos a la deriva y microplásticos hasta en los polos. Un paisaje que cruzamos por autopistas, sobrevolamos en avión, protegidos en las ciudades y rodeados de un aparente "cinturón verde", área de paso suburbano, planificado y urbanizado, teatro de la vida sana y el deporte, telón verde y frontera con el paisaje real, que se presenta hostil, abandonado, esquilmando, transformado por grandes movimientos de tierra o la agricultura extensiva, del que escaparnos por carretera. En definitiva, un paisaje que no queremos mirar y que el o la artista también debe atender, prestarle atención.



Todo lo sólido se desvanece en el aire
Akrilikoa oihal gainean • Acrílico sobre tela
80 cm-ko diámetroa • 80 cm de diámetro
2014







Cuaderno del Ártico II
Grafitoa eta koloretako arkatzak paper gainean
Grafito y lápices de colores sobre papel
19,5 x 25 cm
2017

Aurreko orrialdean / Página anterior:

Todo lo sólido se desvanece en el aire II

Akrilikoa oihal gainean

Acrílico sobre tela

210 x 411 cm

2014

JESUS MARI LAZKANO (Bergara, 1960) Urdaibain bizi eta lan egiten du. EHUKO Arte Ederretan lizentziatua eta doktorea, JAKIUNDEko akademikoa (Euskal Herriko Zientzia, Arte eta Letren Akademia), Europako, Estatu Batuetako eta Asiako hainbat herrialdetan erakutsi izan ditu bere lanak.

Nahiz eta urteak eraman naturan zentratuta, New Yorken, Chicagon, Dallasen edo Erroman egindako egonaldiek hainbat gaikako serietan egituratu dute bere lana. Neurri handiko lanak egin ditu espazio publikoetan, besteak beste, Eusko Legebiltzarrean, Euskalduna jauregian, Bilbao Metroan, San Mameseko trukagailuan, EHUKO Areto Nagusian edo Iberdrolako dorrean, eta baita Shanghaiko Erakusketa Unibertsalean ere, besteak beste.

"Gure Artea" saria jaso zuen 1985ean. 2007an Titano saria, eta banakako erakusketa bat aurkeztu zuen Bilboko Guggenheim museoan. 2010ean Bilboko Arte Ederren museoan izan zuen erakustaldia. Txinan hainbat erakusketa egin ondoren, 2016. urtean Donostiako Kursaaleko Kubo aretoan bere azken 40 urteetako lanaren atzera begirakoa antolatu zen. Bere lana hainbat herrialdetako bilduma eta museotan dago, adibidez, Guggenheim Bilbao museoan.

2017an Artikora egin zen espedizio zientifiko-artistiko batean parte hartu zuen, New York The Arctic Circle fundazioak antolatua.

NEREA argitaletxeak monografia zabala argitaratu du, egilearen testuekin, eta pinturaren osagai kontzeptualean sakonduz.

Berriki, Lazkanok Josu Venerorekin batera ARTIKO filma estreinatu du, Xabi Paya bertsolariaren testu eta ahotsarekin.

JESUS MARI LAZKANO (Bergara, 1960), vive y trabaja en Urdaibai. Licenciado y Doctor en Bellas Artes por la UPV/EHU, académico de JAKIUNDE (la Academia de Ciencias, Artes y Letras del País Vasco), ha expuesto en numerosos países de Europa, Estados Unidos y Asia.

Aunque desde hace años centrado en la Naturaleza, sus estancias en Nueva York, Chicago, Dallas o Roma han estructurado su trabajo en sucesivas series temáticas. Ha llevado a cabo obras de grandes dimensiones en espacios públicos como el Parlamento Vasco, Palacio Euskalduna, Metro Bilbao, Intercambiador de San Mames, Aula Magna de la UPV/EHU o Torre Iberdrola, así como en la Exposición Universal de Shanghai, entre otros.

Premio Gure Artea en 1985. En 2007 recibe el Premio Titano y presenta una exposición individual en el Museo Guggenheim de Bilbao. En 2010 expone en el Museo de Bellas Artes de Bilbao. Tras varias exposiciones en China, en 2016, se organiza en la sala Kubo del Kursaal de Donostia, una completa retrospectiva de sus últimos 40 años de trabajo. Su obra se encuentra en diversas colecciones y museos en varios países, como por ejemplo en el Museo Guggenheim Bilbao.

En 2017, forma parte de una expedición científico-artística al Ártico, organizada por la Fundación de Nueva York The Arctic Circle,

La editorial NEREA, ha publicado una extensa monografía con textos del autor, que profundiza en el componente conceptual de la pintura.

Recientemente, Lazcano ha estrenado la película ARTIKO, junto a Josu Venero y con textos y voz del bertsolari Xabi Paya.

lazkano

Bitakora koadernoa

Ordutegia:

| | |
|------------------------|--------------------------------|
| asteartetik ostiralera | 18:00 - 20:30 |
| larunbatetan | 12:00 - 14:00 |
| igande eta jaiegunetan | 18:00 - 20:30 12:00 - 14:00 |



AROZTEGI
ARETOA



Bergarako
Udala